



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

OINEZKOEN GUNEA ETA EMISIO BAXUKO GUNEA ARAUTZEKO ORDENANTZA

- Hasierako onarpena: Ohiko osoko bilkura 2020ko uztailaren 22an
- BAOn argitaratuko da: 214 zk, 2020ko azaroaren 6a

[https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2020/11/06/II-3523_eus.](https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2020/11/06/II-3523_eus)

- Jendaurrean egoteko epearen amaiera: 20.12.21.



AURKIBIDEA

I. KAPITULUA ORDENANTZAREN HELBURUA ETA APLIKAZIO EREMUA	3
1. artikulua - HELBURUA.....	3
2. artikulua – APLIKAZIO EREMU ESPAZIALA.....	3
3. artikulua - DEFINIZIOAK.....	4
4. artikulua- ORDUTEGIAK ETA EZAUGARRIAK	5
II. KAPITULUA KUDEAKETA SISTEMA	6
5. artikulua- BAIMENAK EMATEA.....	6
6.- Artikulua- SALBUESPENAK	7
7. artikulua- ZAINZA ETA KONTROLA	8
III. KAPITULUA ERREGIMENAK	8
8. artikulua- EGOILIARRAK.....	8
9. artikulua- MUGIKORTASUN MURRIZTUA	9
10. artikulua- GARAJEKO PLAZA	10
11. artikulua- HORNITZAILEAK	10
12. artikulua- MERKATARITZA ETA OSTALARITZA	10
13. artikulua- GREMIOAK	11
14. artikulua- BASERRITARRAK.....	11
15. artikulua- TAXIAK.....	12
16. artikulua- BEREZIAK.....	13
IV. KAPITULUA ARAU HAUSTEAK ETA ZIGORRAK	14
17. artikulua- ARAU HAUSTEAK.....	14
18. artikulua- ARAU HAUSTE MOTAK.....	14
19. artikulua- ZIGORRAK.....	15
V. KAPITULUA XEDAPENAK.....	16
XEDAPEN GEHIGARRIAK	16
AZKEN XEDAPENAK	16



OINEZKOEN GUNEA ETA EMISIO BAXUKO GUNEA ARAUTZEKO ORDENANTZA

I. KAPITULUA

ORDENANTZAREN HELBURUA ETA APLIKAZIO EREMUA

1. artikulua - HELBURUA

Oinezkoen Gune eta Emisio Baxuko Gune gisa izendatutako Guneak arautzea da ordenantza honen helburua. Baimendutako pertsonaren izaera arautzen du, gune horietara sartzeko eta bertan aparkatzeko baldintzak zehazten ditu, eta gune bakoitzean zamalanetarako erabil daitekeen gehieneko denbora-tartea ezartzen du.

2. artikulua – APLIKAZIO EREMU ESPAZIALA

2.1.- Oinezkoen Gunea.

I. eranskineko planoan definitutako gunea da Oinezkoentzako Gunea, eta hirigune historikoko kaleek osatzen dute, zehazki, kale hauek:

- | | |
|-------------------------------|---------------------------------|
| · Andra Mari kalea | · Kurutziaga kalea, Andra Mari |
| · Artekalea | kaleetik Komentukaleko |
| · Azoka kalea | bidegurutzera arte. |
| · Balbino Garitaonandia plaza | · Lariz-Torre kalea |
| · Barrenkalea | · MonagoTorre kalea, |
| · Bartolome Ertzilla kalea | ArandoñoTorre kaleetik merkatu- |
| · Goienkalea | plazara arte |
| · Kalebarria | · Pinondo plaza |
| · Kanpatorrosteta kalea | · San Martin ataria |
| · Komentukalea, Antso Estegiz | · Santa Ana plaza |
| Zumardiarekiko bidegurutzera | · Santanoste |
| arte. | · Zeharkale |

2.2.- Emisio Baxuko Gunea

I. eranskineko planoan zehazten da Emisio Baxuko Gunea zein den. Sanagustinalde kalearen (Galtzaretako bidegurutzetik), Zumalakarregi kalearen eta Jose Miel Barandiaran kalearen artean dago.



3. artikulua - DEFINIZIOAK

3.1.- Egoiliarrak

2. artikuluan zehaztutako kaleren batean erroldatutako pertsona fisikoak dira egoiliarrak.

3.2.- Mugikortasun murriztua

2. artikuluan zehaztutako kaleren batean bizi diren eta baldintza hauetakoren bat betetzen duten pertsonak: 70 urtetik gora izatea, eskumena duen organoak emandako desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela izatea, edo arrazoi puntualen batengatik mugitzeko zailtasunak izatea eta mediku-txosten bidez frogatu ahal izatea.

3.3.- Garajeko plaza

2. artikuluan zehaztutako kaleren batean garajeko plaza bat jabetzan edo errentan duten pertsona fisikoak.

3.4.- Hornitzaileak

2. artikuluan zehaztutako kaleetako ostalaritza-establezimenduak, dendak edo etxebizitza partikularrak hornitzeko ibilgailu egokien bidez zamalanak egiten dituzten garraiolariak.

3.5.- Merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduak

Ordenantzak arautzen duen eremu espazialean produktuen salerosketa egiten duten merkataritza-jardueren eta/edo ostalaritza-jardueren jabeak.

3.6.- Gremioak

Ordenantzak arautzen duen eremu espazialaren barruan konponketekin edo etxebizitzetako obrekin lotutako ekonomia-jarduerak garatzen dituzten profesionalak.

3.7.- Baserritarrak

Merkatu Plazan tokiko produktuak saltzera bideratutako jardueren titularrak.



4. artikulua- ORDUTEGIAK ETA EZAUGARRIAK

4.1.- Oinezkoen Gunea.

Jarraian, gune honetara sartzeko ordutegiak eta unitate bakoitzak bertan igaro dezakeen gehieneko denbora zehazten dira, erregimenaren arabera sailkatuta:

Erregimena	Ordutegia	Unitateko gehieneko denbora
Egoiliarrak	Sarbide librea 24h	30 minutu
Mugikortasun murriztua	Sarbide librea 24h	30 minutu
Garajeko plaza	Sarbide librea 24h	Ez dagokio
Hornitzaileak	Astelehenetik ostiralera, 06:30etik 12:00etara eta larunbatetan, 06:30etik 10:00etara	
Merkataritza- eta ostalaritza- establezimenduak	Astelehenetik ostiralera, 06:30etik 12:00etara eta larunbatetan, 06:30etik 10:00etara	30 minutu
Gremioak	Astelehenetik ostiralera, 06:30etik 12:00etara	30 minutu
Baserritarrak	Larunbatetan, 06:00etatik 15:00etara	30 minutu

Gehieneko denbora igarotakoan, erabiltzaileak gunetik irten beharko du. Dena den, berriro ere sar daiteke oinezkoen gunera, baimendutako ordutegiaren barruan.

4.2.- Emisio Baxuko Gunea

Emisio Baxuko Gunera sartzeko mugak jarraian ezarritakoaren arabera arautuko dira:

Emisio Baxuko Gunera sartzeko mugak	Ordutegia
Asteburua	Ostiralean 20:00etatik, astelehenean 00:00ak arte



Jaiegunak	Jaiegunaren aurreko eguneko TAOren amaieratik, lehenengo laneguneko 00:00ak arte
-----------	---

Sarbide-muga duen ordutegiaren aurretik aparkatutako ibilgailuek ordubete izango dute (21:00ak arte) emisio baxuko gunetik ateratzeko.

Ondorengo erabiltzaileek ez dute debekaturik izango gunean sartzea eta aparkatzea, baina irizpide hauek jarraitu beharko dituzte:

Erregimena	Ordutegia	Unitateko gehieneko denbora
Egoiliarrak	Sarbide librea 24h	30 minutu
Mugikortasun murriztua	Sarbide librea 24h	30 minutu
Garajeko plaza	Sarbide librea 24h	Ez dagokio
Taxiak	Sarbide librea 24h	Ez dute aparkatzeko denbora-mugarik

II. KAPITULUA

KUDEAKETA SISTEMA

5. artikulua- BAIMENAK EMATEA

5.1.- Erregimen orokorreko baimena.

Interesdunek egin behar dituzte eskaerak eta HAZen aurkeztu behar dituzte, horretarako prestatutako ereduak erabilia. Baldintzak bete beharko dituzte, eta erregimen bakoitzari dagozkion dokumentuak aurkeztu beharko dituzte. Jarraian zehazten dira erregimen bakoitzak aurkeztu beharreko dokumentuak.

5.2.- Baimen puntuala.

Jarraian zehazten diren ezohiko sarbideetarako, edo sarbide puntualetarako, 48 ordu lehenago egin behar da eskaera HAZen:

- Oinezko Gunera sartu nahi duten 5.000 kg-tik gorako BGMa duten ibilgailuek dagokien erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute.



- b) Etxe-aldaketa eta/edo obra kasuetan, ezarritako baldintzen edo ordutegien barruan egiteko modurik ez badago.
- c) Obretarako elementu osagarriak jarri behar dituzten ibilgailuak, baldin eta elementu horiek jartzeko 2. artikuluan zehaztutako guneren batean trafikoa moztu behar bada.
- d) Gunearen barrura edo gunetik kanpora gaixoak edo mugikortasun murriztuko pertsonak garraiatzen dituztenak.
- e) Ibilgailu baten jabe ez diren, baina beste norbaiten ibilgailuarekin beren etxebizitzara sartu behar duten egoiliarak.

5.3.- Durangoko Udalaren Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zergaren (TMIZ) erroldan alta emanda egon behar duten ibilgailuen kasuan, dagozkion ordainketak eginda izan behar ditu. Zerga ordaintzen den etxebizitzak bat etorri behar du Udaleko erroldan agertzen denarekin.

Eskaera lehenengo aldiz egiten duten pertsonak, bigarren eskuko autoa urte horren hasieran erosi badute, salbuetsita egongo dira.

5.4.- Kasu guztietan, eskatzailearen nortasuna ziurtatzen duen Nortasun Agiri Nazionala, Bizileku Txartela edo Pasaportea aurkeztu behar da.

5.5.- Udal Erroldaren bidez ziurtatuko du Udalak eskatzailea egoiliarra den eta/edo mugikortasun-baldintzak betetzen dituen.

5.6.- Artikulu honetan zehaztutako edozein baldintza egiaztatze aldera, behar adina dokumentu eskatu ahal izango dizkio Udalak interesdunari.

6.- Artikulua- SALBUESPENAK

6.1.- Aurrez azaldutako ordutegien erregimenak ez die eragiten ondorengo zerbitzuak egiteko beharrezko ibilgailuen zirkulazioari eta aparkatzeari:

- a) Suhiltzaile-, Polizia- eta Osasun-zerbitzuetako ibilgailuak, eta, orokorrean, zerbitzu publikoak eskaintzeko beharrezkoak direnak.
- b) Larrialdi-kasuetan, ezbeharrak konpondu behar direnean edo antzeko kasuetan, aurrez matrikula Udaltzaingoari jakinarazita. Bizikletak: Zirkula dezakete, beti ere



zentsuzko abiaduran, eta oinezkoengandik metro bateko distantzia mantenduta. Bestela, oinez mugitu beharko dute, bizikleta alboan hartuta. Udal Zirkulazio Ordenantzak bere 72.artikuluean adierazten duen moduan.

- d) Banaketa-lanak egiten dituzten motozikleta eta ziklomotorrak, dagokien establezimenduaren publizitatearekin modu egokian identifikatuta.
- e) Behar bereziak dituzten hornitzaileek ez dute 4. artikuluan zehaztutako ordutegia bete beharko. Honakoak dira behar bereziak dituzten hornitzaileak:
 - a) Prentsa-banatzailak.
 - b) Igandeetan lan egin behar duten gozotegiak.
 - c) Farmaziako banaketa-enpresak.

7. artikulua- ZAINZA ETA KONTROLA

7.1.- Ordenantza hau beteko dela bermatzeko helburuarekin, zaintza- eta kontrol-zerbitzua ezarriko da, beharrezko bitarteko materialak eta pertsonalak erabilita.

7.2.- Zaintza-sistemaren baitan, Ordenantza honetan zehazten diren oinezkoen gunerako eta/edo emisio baxuko gunerako sarbideak automatikoki kontrolatuko dira kameraren bidez.

7.3.- Baimena duten erabiltzaileek ez dute sarrerak edo irteerak balioztatzeke inolako elementu fisikorik behar ibilgailuetan.

III. KAPITULUA

ERREGIMENAK

8. artikulua- EGOILIARRAK

8.1.- Baldintzak

- a) Ordenantza honetako 2. artikuluan zehaztutako eremu espazialean erroldatuta dagoen pertsona fisiko batek izan behar du eskatzailea.
- b) Eskatzaileak ibilgailuaren ohiko gidaria izan behar du.
- c) Durangoko Udalaren Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Zergaren (TMIZ) erroldan alta emanda egon behar du eta dagozkion ordainketak eginda izan behar ditu.

8.2.- Dokumentazioa

- a) Eskatera inprimaki ofizialean, behar bezala beteta.



- b) Eskatzailearen nortasuna ziurtatzen duen Nortasun Agiri Nazionala, Bizileku Txartela edo Pasaporteak.
- c) Zirkulazio-baimena.
- d) Aseguru-poliza.

8.3.- Baimen-kopurua

- a) Pertsona bakoitzeko ibilgailu bakarra baimenduko da.
- b) Pertsona bati bi baimen eman ahalko zaizkio, bigarren ibilgailua bere ezkontideak edo aurreko/ondorengo lehenengo mailako senitarteko zuzen batek erabiltzen badu, beti ere pertsona horiek ibilgailuaren jabearen etxe berean erroldatuta badaude eta batera bizi badira, eta ibilgailuaren aseguru-polizan gidari nagusi gisa agertzen badira.
- c) Edonola ere, etxebizitza bakoitzeko, gehienez, hiru baimen emango dira.

9. artikulua- MUGIKORTASUN MURRIZTUA

9.1.- Honako egoeretan baino ez da baimenduko eremura sartzea:

- a) Eskatzaileak 70 urte edo gehiago dituenean.
- b) Eskatzaileak desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartela duenean, organo eskudunak emanda.
- c) Arrazoi puntualengatik mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonen kasuan, mediku-txosten baten edo gehiagoren bidez egiazta badaiteke.

9.2.- Baldintzak

- a) Ordenantza honetako 2. artikuluan zehaztutako eremu espazialean erroldatuta dagoen pertsona fisiko bat izan behar du eskatzaileak.

9.3.- Dokumentazioa

- a) Eskaera inprimaki ofizialean, onuradunak behar bezala beteta.
- b) Eskatzailearen nortasuna ziurtatzen duen Nortasun Agiri Nazionala, Bizileku Txartela edo Pasaporteak.
- c) Baimendu beharreko ibilgailuaren edo ibilgailuen zirkulazio-baimena
- d) Desgaituentzako aparkatze-txartela edo 9.1 artikuluko b) eta c) egoerak egiaztatzeke mediku-txostenak.



9.4.- Baimen-kopurua

- a) Etxebizitza bakoitzeko bi ibilgailu baimenduko dira.

10. artikulua- GARAJEKO PLAZA

10.1.- Baldintzak

- a) Eskatzailea ibilgailuaren ohiko gidaria izatea.
- b) Ordenantza honen aplikazio-eremuan garajeko plaza bat izatea, jabetzan edo errentan.

10.2.- Dokumentazioa

- a) Eskaera inprimaki ofizialean, behar bezala beteta.
- b) Eskatzailearen nortasuna ziurtatzen duen Nortasun Agiri Nazionala, Bizileku Txartela edo Pasaportea.
- c) Plazaren jabetza-eskubidearen edo errentamenduaren egiaztagiria.
- d) Zirkulazio-baimena.
- e) Aseguru-poliza.

11. artikulua- HORNITZAILEAK

11.1.- Baldintzak

- a) Oinezkoen Gunean dauden ostalaritza- edo merkataritza-establezimenduetara edo etxebizitzetara banaketa-lanak egiten dituzten ibilgailuen jabeak.

11.2.- Dokumentazioa

- a) Eskaera inprimaki ofizialean, behar bezala beteta.
- b) Eskatzailearen nortasuna ziurtatzen duen Nortasun Agiri Nazionala, Bizileku Txartela edo Pasaportea.
- c) Zirkulazio-baimena.

12. artikulua- MERKATARITZA ETA OSTALARITZA

12.1.- Baldintzak

- a) Merkataritza- edo ostalaritza-jarduera Oinezkoen Gunean garatzea.

12.2.- Dokumentazioa



- a) Eskaera inprimaki ofizialean, behar bezala beteta.
- b) Eskatzailearen nortasuna ziurtatzen duen Nortasun Agiri Nazionalea, Bizileku Txartela edo Pasaportea.
- c) Zirkulazio-baimena.
- d) Finantza-errentamenduko ibilgailuen kasuan, leasing-aren edo Renting-aren jatorrizko kontratua eta fotokopia.

12.3.- Baimen-kopurua

- a) Jarduera-lizentzia bakoitzeko bi (2) baimen emango dira.

13. artikulua- GREMIOAK

13.1.- Baldintzak

- a) Ibilgailuaren BGMa 3.500 kg-koa edo gutxiagokoa izatea, eta lizentziaren titularraren izenean egotea edo finantza-errentamenduan izatea (leasing edo renting).
- b) Ibilgailuak merkataritza-izaera izatea eta behar bezala errotulatuta egotea.
- c) Gremioko ibilgailua dela ziurtatzea.

13.2.- Dokumentazioa

- a) Eskaera inprimaki ofizialean, behar bezala beteta.
- b) Eskatzailearen nortasuna ziurtatzen duen Nortasun Agiri Nazionalea, Bizileku Txartela edo Pasaportea.
- c) Ekonomia Jardueren Gaineko Zergaren ziurtagiria.
- d) Erreferentziatzko ibilgailua ekonomia-jardueraren jabetzakoa dela ziurtatzen duen Zirkulazio Baimena.
- e) Finantza-errentamenduko ibilgailuen kasuan, leasing-aren edo Renting-aren jatorrizko kontratua eta fotokopia.

13.3.- Baimen-kopurua

- a) Jarduera bakoitzeko bi baimen emango dira.

14. artikulua- BASERRITARRAK

14.1.- Baldintzak

Udalaren baimena indarrean izatea.



14.2.- Dokumentazioa

- a) Eskaera inprimaki ofizialean, behar bezala beteta.
- b) Eskatzailearen nortasuna ziurtatzen duen Nortasun Agiri Nazionalea, Bizileku Txartela edo Pasaportea.
- c) Zirkulazio-baimena.
- d) Finantza-errentamenduko ibilgailuen kasuan, leasing-aren edo Renting-aren jatorrizko kontratua eta fotokopia.

14.3.- Baimen-kopurua

- a) Jarduera bakoitzeko baimen bat emango da.

15. artikulua- TAXIAK

15.1.- Taxiek denbora-mugarik gabe aparkatu ahal izango dute Emisio Baxuko Gunean, haien ibilgailuentzat prestatutako lekuetan. Bestetik, bezero bat jasotzeko edo uzteko sartu ahal izango dute Ordenantza honek araututako gainerako eremuetan.

15.2.- Baldintzak

- a) Eskatzaileak ibilgailuaren ohiko gidaria izan behar du.
- b) Ibilgailua behar bezala seinaleztatzea.
- c) Taxi-gidaria dela ziurtatzea.

15.3.- Dokumentazioa

- a) Eskaera inprimaki ofizialean, behar bezala beteta.
- b) Eskatzailearen nortasuna ziurtatzen duen Nortasun Agiri Nazionalea, Bizileku Txartela edo Pasaportea.
- c) Erreferentziazko ibilgailua ekonomia-jardueraren jabetzakoa dela ziurtatzen duen Zirkulazio Baimena.
- d) Finantza-errentamenduko ibilgailuen kasuan, leasing-aren edo Renting-aren jatorrizko kontratua eta fotokopia.

15.4.- Baimen-kopurua



- a) Jarduera bakoitzeko baimen bakarra emango da.

16. artikulua- BEREZIAK

16.1.- Kasu berezietan, eta jarduerak duen interes publikoaren arabera, Alkatetza-Lehendakaritzak baimen bereziak eman ahal izango ditu. Baimen horiek horretarako ezarritako prozeduraren arabera izapidetuko dira.

16.2.- Oinezkoen Gunean zein Emisio Baxuko Gunean sartzeko eta aparkatzeko eskubidea izango dute baimen berezien titularrek.

16.3.- Baldintzak

- a) Zerbitzu publikoak eskaintzera bideratuta dauden eta une horretan zerbitzu horiek eskaintzen ari diren ibilgailu ofizialak, Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren edo beste Institutio batzuen jabetzakoak, eta behar bezala identifikatuta daudenak.
- b) Zerbitzu publikoen ustiatze- eta mantentze-enpresetako ibilgailuak (batez ere, industria-ibilgailuak), Durangon zerbitzu publikoak eskaintzera bideratuta daudenak eta une horretan zerbitzu horiek eskaintzen ari direnak, behar bezala identifikatuta.
- c) Etxez etxeko osasun-arretarako erabiltzen diren ibilgailuak, osasun-langile publikoen jabetzakoak.

16.4.- Dokumentazioa

- a) Eskaera inprimaki ofizialean, behar bezala beteta.
- b) Zirkulazio-baimenaren fotokopia.
- c) Ibilgailua dagokion jarduera ofizialerako edo publikorako erabiltzen dela ziurtatzen duten agiriak (departamentuko buruak sinatutako dokumentua).

16.5.- Baimen-kopurua

- a) Ibilgailu bakoitzeko baimen bat emango da.



IV. KAPITULUA

ARAU HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

17. artikulua- ARAU HAUSTEAK.

17.1.- Trafikoaren ordenantzaren arauak haustearen parekotzat joko da Ordenantza honetako edozein artikulua ez betetzea, eta Trafikoaren, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioaren eta Bideko Segurtasunaren Legearen testua onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera, hura garatzeko erregelamenduaren arabera eta bat datozen gainerako lege-xedapenen arabera zigortuko da.

17.2.- Trafikoa, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioa eta Bideko Segurtasunaren arloko Zehapen Prozeduraren Erregelamendua onartzen duen otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuan ezarritako lege-prozeduraren arabera edo haren ordezkoko legearen arabera zigortuko dira arau-haustek. Udaltzainek eta eskumena duten gainerako funtzionarioek egingo dituzte Ordenantza hau ez betetzeari dagozkion salaketak.

17.3.- Ordenantza honetan aurrez ikusten ez diren kasuetan, Bideko Segurtasunaren Legeak eta hura garatzeko sortutako araudiak ezarritakoa aplikatuko da.

18. artikulua- ARAU HAUSTE MOTAK

Ordenantza honetako edozein zehaztapen ez betetzea arau-haustetzat joko da. Lau motatako arau-haustek daude:

18.1.- ARAU HAUSTE ARINAK – A MOTA:

- a) Unitateko baimendutako gehieneko denbora gainditzea, 30 minutu baino gutxiagoz.

18.2.- ARAU HAUSTE ARINAK – B MOTA:

- a) Unitateko baimendutako gehieneko denbora gainditzea, 30 minutu baino gehiagoz.
- b) Baimena emandako garaian kontuan izandako datuak aldatu eta hamabost eguneko epean Durangoko Udalari ez jakinaraztea, hala nola ibilgailuen titularra, jabearen bizitokia eta garajeko plazaren titularra edo alokairua.



- c) Arau-haustea egin duen gidariaren nortasuna ez jakinaraztea, ibilgailuaren jabeari hala eskatutakoan.

18.3.- ARAU HAUSTE LARRIAK:

- a) Baimenik gabeko ibilgailuak Oinezkoen Gunean eta Emisio Baxuko Gunean sartzea.
- b) Urtebetean hiru arau-hauste arin egitea.

19. artikulua- ZIGORRAK

19.1.- Ordenantza honetan zehaztutako arau-haustek isunarekin zigortuko dira. Isunen zenbatekoak honako hauek izango dira:

- A MOTAKO arau-hauste ARINEK 60 euroko isuna izango dute. B MOTAKO arau-hauste ARINEK 90 euroko isuna izango dute.
- Arau-hauste LARRIEK 200 euroko isuna izango dute, eta Ordenantzaren aplikazio-eremu espazialera sartzeko baimena kenduko zaio araua hautsi duenari, gutxienez urtebeterako (1) eta gehienez hiru (3) urterako.

19.2.- Ordenantza hau ez betetzeagatik 18. artikuluaaren arabera jarritako zigorrak bateragarriak izango dira trafiko-arauak hausteagatik jarritako beste edozein zigorrekin, bereziki, debekatutako norantza-seinaleei kasurik ez egiteagatik jarritako zigorrekin.

19.3.- Zigorra ordaintzeak ez du esan nahi salatutako ibilgailuak Oinezkoen Gunean edo Emisio Baxuko Gunean jarrai dezakeenik. Sarrera-ordutegiak eta unitateko gehieneko aparkatze-denbora aplikatuko dira.

20. ARTIKULUA- IBILGAILUA ERRETIRATZEA.

20.1.- Trafikoaren, Motordun Ibilgailuen eta Bideko Segurtasunaren gaineko Legearen testua onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 105. artikuluari jarraituz, baimenik izan gabe Ordenantza honen eremu espazialean dagoen ibilgailua erretiratu egingo da.

20.2.- Ibilgailua jabeari bueltatzeko, dagokion Ordenantza Fiskalak ezarritako tasak



ordaindu beharko ditu aurretik, bide publikotik ibilgailua kentzeko zerbitzuari dagozkionak, eta ibilgailua udalaren biltegian gordeta izateari dagozkionak. Tasa horiek ordaintzeak ez du esan nahi ezar lekizkiokeen isunak ordaintzetik salbuetsita dagoenik.

V. KAPITULUA

XEDAPENAK

XEDAPEN GEHIGARRIAK

LEHENENGOA.

Alkatetza-Lehendakaritzak Ordenantza hau aplikatzeari utz diezaioke, dagokion lurralde-eremu osoan edo zati batean, egoki deritzon denbora-tartean edo egunetan, edo interes publikoko beste egoera batzuetan.

BIGARRENA.

Alkatetza-Lehendakaritzak Ordenantza honetan ezarritako baimenen iraupen-epea luzatu edo murriztu dezake larrialdi-arrazoiengatik edo interes publikoko arrazoiengatik, behar bezala arrazoitzen badira.

AZKEN XEDAPENAK

LEHENENGOA.

Aldaketa hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta ez da indarrean sartuko Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 65.2 artikuluan aurrez ikusitako epea igaro arte.

BIGARRENA.



Ordenantza honetan aurreikusi ez diren kasuetan, Trafikoaren, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioaren eta Bideko Segurtasunaren gaineko Legea, Zirkulazio Erregelamendua eta gainerako garapen-xedapenak aplikatuko dira, aplikagarriak direnean, osagarri gisa.

HIRUGARRENA.

Posible izango da ordenantza honetan ezarritako zigorren zenbatekoak berrikustea eta hiru urtetik behin Alkatetza-Lehendakartzaren Dekretuz eguneratzea.

I. eranskina. Planoa



-  Oinezkoen Gunea
-  Emisio Baxuko Gunea